

REAS, 20 AÑOS RECORRIENDO EL CAMINO DE LA ECONOMÍA SOLIDARIA

REAS, 20 URTE EKONOMIA SOLIDARIOAREN BIDEA URRATZEN



IMAGINA ONLINE
CASTELLANO



IMAGINA ONLINE
EUZKARAZ

REAS, 20 URTEAN EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN EKIMENAK SUSTATZEN NAFARROAN



ELKARRIZKETAREN
BIDEOA

Nafarroako Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Sareak 20 urte bete ditu. 90eko hamarkadako hasieran abiatu zen, jendea gizarteratu eta laneratzeko arloan eta objektuak berreskuratu eta berrerabiltzeko lanetan ziharduten pertsona eta elkarte batzuen ekimenez. Gune ekonomiko hark printzipio berdinak izan zituen oinarri eta, horri REAS Nafarroa esan zitzaion 2003tik aitzina. Carlos Rey eta Edurne Arzelus mugimendu honetako bi pertsona beterano dira eta gogoetan aritu zaizkigu bai ibilbideaz bai etorkizuneko erronkez.

Nafarroako Ekonomia Sozial eta Solidarioaren has-
tapenak 1990ekoak dira. «Jardunaldi bat egin zen
enpresa sozial marjinalari buruz eta, gero, enpre-
sa sozial solidario kontzeptua sortu zen. Handik
gutxira, 1995ean, REAS sortu zen Estatu osorako,
Europar ere kontzeptu hori lantzen hasiak zire-
lako. Hastapenak, zehazki, jendea gizarteratzeko
enpresak izan ziren», ekarri digu gogora Carlos
Reyk, orain ere REASko kide denak.

Hasieran, REAS Euskal Herria izenarekin lanean
hasi bazen ere, laster behar adinako bolumena izan
zen Nafarroan berezko sarea sortzeko eta, horrela,
2003an, REAS Nafarroa sortu zen, arlo sorta zabalean
arituta; haien artean daude gizarteratzea, enplegu
sustapena, berreskuratzaileak (Emausko Trapuketa-
riak, kasu), GKEak (SETEM eta Medicus Mundi, adibi-
dez), eraikuntza-enpresa batzuk, turismo-enpresa
zenbait, finantza etikoak, kontsumo agroekologi-
koko kooperatibak; hitz batez, era askotako erakun-
deak, baina guztiek ere honako oinarri hau hartuta:
«Mundu solidarioaren alde ekiteko Gutuna». Testu,
horrek, azkenean, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren
Gutuna sorrarazi zuen.

«Bi motibazio handi zeuden: batetik, sistema kapi-
talistak sortzen duen desberdintasun kopuru izu-
garria, eta horri loturik, jende askok laneratzeko
zituen zailtasunak, eta bestetik, ingurumenaren
kontua», dauka gogoan Reyk. Beste alderdi bat ere
bazegoen, hots, une hartako sareak lehiakortasunaz
mintzatzen ziren eta «gure ikuspegitik, hori ez zen
funtsezko elementua jendearen zerbitzuko eko-
nomiarentzat, ezta justizia sozialean oinarritutako

gizartea sortzeko ere», erantsi du. Hori zela eta,
«behar bezalako ekosistema bat sortzea erabaki
zen, beste balio batzuekin bat eginik ekoizteko,
banatzeko, kontsumitzeko eta finantzatzeko» eta,
horrela, «justizia sozialaren eta giza eskubideen
printzipioekin bat zetorren eredurantz» jotzeko.

Hasieran, mugimendu hura 4 printzipiotan oinarritu
bazen ere, laster egungo 6ak txertatu ziren haren
izaeran: Ekitatea, Jasangarritasun Ekologikoa, Lanki-
detza, Lan Duina, Aberastasunaren Bidezko Banake-
ta eta Ingurunearekiko Konpromisoa.

Edurne Arzelus buru-belarri dabil jendea gizarte-
ratu eta laneratzeko ekimenetan eta azaldu digu
egungo eredu sozioekonomikoak jende aunitz
uzten duela kanpoan. «Jende guztiok dugu eskubi-
dea kide garela sentiarazten digun sisteman parte
hartzeko. Lan Duina printzipioaz mintzo gare-
nean esan nahi dugu ereduak balioa eman behar
diela proiektuko kide diren pertsona guztiei», eta
azpimarratu du Ekonomia Sozial eta Solidarioan
lana eta familia bateragarri egiteari ematen zaion
garrantzia. «Ekonomia solidarioak ez zaitu behar-
tzen hazkuntzaren eta lanaren artean aukeratzera.
Zuk proiektuari zure ekarpena egiten jarraitu
dezakezu eta, aldi berean, hazkuntza askoz ere
modu orekatuagoan egin. Bestela, bizitzari eragi-
ten dioten erabakiak hartzen ditugu lan batean
segitzeko», deitoratu du.

Carlos Reyk nabarmendu du Ekonomia Sozial eta
Solidarioak kapitalismoaren «inkoherentzia» histori-
koak seinalatzen dituela aspalditik hona. «Merkearen

Behar bezalako
ekosistema bat
sortzea erabaki zen
beste baloreetatik
ekoizteko, banatze-
ko, kontsumitzeko
eta finantzatzeko,
eta horrela justizia
sozialaren eta giza
eskubideen printzi-
pioekin bat zetorren
eredurantz jotzea.

«Eragin politikoa ez da hainbeste kalean ikusten, baina oso emaitza praktikoak ditu programak garatzeko, edota xedapenak kontratazioetan sartzeko...»



CARLOS REY

EDURNE ARZELUS

«Lan Duina printzipioaz mintzo garenean esan nahi dugu ereduak balioa eman behar diela proiektuko kide diren pertsona guztiei»

bila kontsumitzen duzunean, luzarora garesti baino garestiago ateratzen zaizu. Izan ere, multinazionaletan eta azalera handietan erosten duguna oso urrutitik dator, eta enplegua hemen galtzen da. Kontuan hartu behar dugu non erosten dugun eta nori erosten diogun, eta kontuan hartu gure erosketa egiazki laguntzen ari ote zaion tokiko garapenari; zeren, bestela, luzarora, ziur aski zuk edo zure seme-alabek kanpoan bilatu beharko baitute lana», azaldu du argi.

Nafarroako Ekonomia Sozial eta Solidarioaren etorkizuneko erronkak direla eta, biek azaldu dute Sarea sendotu behar dela. Pandemiak ederkiki erakutsi zuen Nafarroako REAko proiektuen erresilientzia-gaitasuna, denek eutsi zioten, eta orain krisian eta indarkeriaz beterik dagoen testuinguru geopolitikoari egin behar zaio aurre. Haien iritziz, bideetako bat beste sareekiko harremana eta lan-kidetza da. «Badago sare-ekosistema bat, hainbat arlo barne hartzen dituen eta balio berberak dituen. Adibidez, gizarteratze eta laneratzeko enpresek beste eredu bat erabili behar dute, bazterketa areagotuko ez duena. Eta haien eredu ekonomia solidarioaren eredu da», esan du Carlos Reyk, eta aldi berean, oroitari du ekosistema hori Nafarroako Gobernuak eta Foru Parlamentuak berak hartu dutela aintzat, bi aldiz eman baitzaio Nafarroako Urrezko Domina. Horren haritik, Arzelusek azpimarratu du eragin politikoaren arloan egindako lan garrantzitsua, kontratazio publikoan gizar-te eta ingurumen arloko xedapenak sartzeko. «Eragin politikoa ez da hainbeste ikusten, ez du lekuri kalean, baina oso emaitza praktikoak ditu programak garatzeko, edota xedapenak kontratazioetan sartzeko...». Eta horretan REAko oso eginkizun garrantzitsua betetzen du. «Nik uste dut funtsezkoa dela; azken buruan, Sarea sarean kide diren erakundeen bozgorailua da. Zure enpresak merkatu normalizatuan lehiatu behar badu, merkatu-erreserba bat egon beharko du ongi egiten ari zarena puntuatzeko».

Azken hamarkadetan Udal batzuek ere sortu dituzte laneratzeko eta gizarteratzen enpresak, eta Sarearen egin-kizuna funtsekoa izan da. Geltoki bera aurrerapausoaren adibide garbia da, Nafarroako Ekonomia Sozial eta Solidarioaren erakusleia baita Iruñean.

Halaber, zer hobetu ikusten dute edota non eragin indar handiagoz. «Adibidez, merkatu sozialaren gaian, orain pixka bat geldia baitago, auzo eta ferietan egin ondoren», adierazi du Arzelusek, eta tresnak sortzea jo du beharrezkotzat, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren «zirkuituaren barnean bertan indarra eman diezazuten». Eta biak bat datoz esaterakoan sarea hobeki egituratu behar dela lurralde osoan. «Ekonomia Sozial eta Solidarioaren enpresa aunitzek dihardute landa inguruneetan, eta leku horietan eragile izatea lortu behar dugu biztanleek hirietako zerbitzu berberak eskura izan ditzaten». Reyk esan du lan handiagoa egin behar dela erakundearen baitan Ekonomia Sozial eta Solidarioaren alde, eta Gizarte Auditoretzaren tresna indartu, kalitatezko ziguila gisa. «Helburua da gizartearen atxikimendua erdiestea; eta hori, adibidez, Geltokin lortu dugu; bertan, gainera, tokiko eta zero kilometroko produktuen sektorea ari dira sustatzen, eta horrek ekimen berriak sortzen laguntzen du; zeren, inork enpresa berririk sortu nahi badu balio horiek nabarmenduta, batzuetan oso nekoso da. Beraz, laguntza hori funtsezkoa da. Hortxe dago eragin sozialaren erronka, hau da, askoz ere herritar gehiago lotu daitezela kontsumo arduratsuari, finantza etikoei..., asko kostatzen delako».

Kezken artean, «bizitza aldatuko digun» klima-alaketaz ohartarazi digu Reyk, eta ea horrek nola harrapatzen gaituen antolaketa sozialari dagokionez, «egiazki gauzak gaizki datozenean». Arzelusek erantzi du ekonomia solidarioak bestelako tresnak sortu behar dituela egoera horiei aurre egiteko, eta ez soilik «moneta tresnak».

Geltoki, 5 urte

elikadura ekologikoa eta ekonomia solidarioa kulturarekin uztartzen Iruñeko zentroan



ELKARRIZKETAREN
BIDEOA

Iruñeko Autobus Geltoki Zaharrearan kokatzen da Geltoki, eta **Ekonomia Solidarioaren** eta **elikadura burujabetzaren** kultur espazioa da. **Katrin Ginea** da proiektu honen koordinatzailea eta berarekin egin dugu hitzordua orain arte egindako ibilbideaz mintzatzeko.

Eraikina 1934. urtean mustu zen, izan zen edifizio baten barruan zegoen Estatuko lehenengo autobus estazioa. Duela 17 urte, Iruñeko Udalak Autobus Geltoki berria ireki zuenean, geltoki zaharra itxi egin zen, eta bere etorkizuna zein izango zen ez zegoen batere argi. Orduan, REAS Nafarroak beste kolektiboekin batera, Udalari proposatu zion eraikinari gaur egungo erabilera ematea. Baina eskuinak ez zion bide eman, eta 2015 arte itxaron behar izan zen. Orduan eman zen aldaketa Iruñean, eta Udal talde berriak ontzat eman zuen proposamena. Geltoki Iruñea elkarte sortu zen REAS Nafarroa, Emauseko Trapukariak, EHNE sindikatua, CPAEN, eta Elikadura Artisauen Elkartearen eskutik, eta langileek kooperatiba sortu zuten proiektua kudeatzeko.

Geltoki helburu argi batekin jaio zen: **«Ekonomia solidarioa eta elikadura burujabetza ezagutzera ematea kulturaren bitartez. Dendan eta tabernan ere lan egiten dugu bertako produktuekin, ekologikoak, sasoikoak... eta jarduera asko egiten ditugu elikadurarekin lotuak eta kultur arloko eragile eta artistei ere lekua uzten diegu»**, azaltzen du **Katrin Gineak**.

Garai batean, autobus geltokiak landa eremuarekin lotzen zuen hiria, eta gaur egun lotura hori Ekomerkatuaren bidez edota dendan saltzen diren produktuen bidez egiten da. **«Guretzako garrantzitsua da ekoizleak herrian bertan lan eta bizi ahal izatea»**, aipatzen du Katrinek, eta horregatik, CPAENekin batera, Ekomerkatua antolatzen dute hilean behin, lehenengo larunbatean.

Egindako bideaz, Gineak hitz onak ditu: **«5 urte hauek erakusten digute jendearengana iristen ari garela eta jendea gero eta kontzientzia gehiago duela. Behintzat, bertako produktuak kontsumitu behar direla»**. Eta hori argi geratzen da jatetxea egunero betea dagoela ikusterakoan. Hala ere, erronka bat da egunero km0 produktu ekologikoekin menu bat osatzea: **«Hemen ekoizleekin lan egiten dugu zuzenean. Ez da zaila, baina ohitu egin behar zara»**.





Gure helburua da ekonomia solidarioa eta elikadura burujabetza ezagutzera ematea kulturaren bitartez. Dendan eta tabernan bertako produktuekin lan egiten dugu, ekologikoak, sasoikoak...

Trastoteka: ez erosi, erabili!

Geltokiren azken proiektua duela aste batzuk jarri da abian: Trastoteka, liburutegi batean liburuak hartzen diren beza-la, gauzak hartzeko lekua. Adibidez herramientak, gurpil aulki bat, muletak... "Gutxitan erabiltzen ditugun tresna edo gailuak, normalean etxean ez ditugunak. Nahi duguna da denon eskura jartzea eta partekatzea, erosi beharrean, erabili. Bizi gara kontsumo erraldoi batean, erosi eta bota, eta hori da ekiditu nahi duguna", dio Gineak.



Ekonomia solidarioa, lehenengo egunetik

Hasiera hasieratik Ekonomia Solidarioaren 6 printzipiopean lan egin dutela ziurtatzen du Katrinek. «Guretzako hori oso inportantea da. Pertsonaren ongi izatea, gure artean zaintzea... Ostalaritzan ez da oso ohikoa jai egunetan ixtea, adibidez. Eta guk uste dugu langile guztiok berdin balio dugula, beraz soldata berdina dugu, nahiz eta gero bakoitzaren erreponsabilidadearen arabera ere kobratzen den». Horrez gain, Geltokik REAsek sorturiko Auditoretza Sozialaren tresna erabiltzen du Ekonomia Solidarioaren printzipioekiko konpromisioa neurtzeko.



Kultura espazioa eta foro herritarrak

Geltokiko agendan egunero aurkitu ditzakegu era guztietako jarduerak: erakusketak, Ekonomia Solidarioaren inguruko aktibitateak, kontzertuak, gastronomiarekin lotutako ikuskizunak... «Baina guretzako oso inportantea da Iruñean eta Nafarroan dauden kolektibo sozial guzti horiei espazioa uztea. Eta hemen askotan ditugu liburuen aurkezpenak, festak, poetry slamak...», dio Gineak. Ekimen guzti horiek Geltoki.red webgunean iragartzen dituzte.

Eta horrez gain, kontzientziaziorako esparruak ere sortu dituzte. «Momentu honetan 3 foro ditugu: finantza etikoena, energiarena eta ehungintza industriaren inguruan dauden arazoak ezagutzera emateko foroa. Denuntzia egiteaz gain, alternatibak ere eskaintzen dira».



Geltokiren etorkizuna, zalantzan

Orain arte egindako ibilbidea «oso positiboa» bada ere, Gineak eta gainontzeko langileek ezin dute burutik kendu Udalarekin duten hitzarmena 2024ko abenduan amaituko dela, eta nahiz eta luzatu daiteken, oraindik ez dakite zer gertatuko den. Azkenaldi honetan Autobus Geltoki Zaharraren etorkizunaren inguruko zurrumurruak zabaldu dira. «Guk bitartean lana ongi egiten jarraituko dugu, gero eta oinarri sozial handiagoa izateko. Udalari gure proposamena da eraikina ez botatzea, eta helburu sozialak izango dituen zerbait egitea, eta gu hemen jarraitzea», esaten du Geltokiko arduradunak.

GIZARTE

Auditoria REASen.

10.500 PERTSONA

baino gehiago ari dira

Nafarroako ESSan.

Aurten ere, Ekonomia Sozial eta Solidarioak bere barruari begiratu dio Gizarte Auditoretzaren bidez, hau da, REASEk ESSeko erakunde eta enpresen eskura jartzen duen autoebaluazio tresnaren bidez, sortzen duen ekosistemaren erradiografia egiteko eta bere praktikak eta emaitzak baloratzeko.

Gizarte Auditoretzak adierazle kualitatibo eta kuantitatiboak erabiltzen ditu, entitateek beren funtzionamenduaren gaineko diagnostikoa egiteko aukera izan dezaten; horrela, beren kalitatea hobetzeko estrategiak zehaztuko dituzte –bakoitzak berea– gizarte eta ingurumen arloetan; horrela ere sektorearen garrantzia eta jasangarritasunari ematen zaio ikusgarritasuna. Prozesuak ebaluatzen du Ekonomia Solidarioaren Gutuneko printzipioak betetzen ote diren: **Ekitatea, Lan duina, Jasangarritasun ekologikoa, Lankidetzak, Aberastasunaren bidezko banaketa eta Ingurunearekiko konpromisoa.**

Estatu osoan, **641 erakundek** egin dute Gizarte Auditoretza, eta horietatik **37 Nafarroakoak dira**. Gure lurraldeko datuek baieztatzen dute pandemia eta krisi geopolitikoak gorabehera, ESSren proiektu guztiek lanean jarraitu dutela eta eutsi egin diotela. Gaur egun, sektoreak **619 langile** ditu, baina askoz ere pertsona gehiago ari dira: **2.250 boluntario** baino gehiago eta **7.500 elkartekide** baino gehiago, hain zuzen. Bestalde, erakundeek **diru-sarrerak 35 milioi** eurotik gorakoak izan ziren, eta **34 milioiko gastua** egin zuten

Deigarria da entitateen datuetan dagoen parekotasuna. **% 59 emakumeak dira, eta % 62 ardura-postuetan daude.** Gainera, ez dago soldata-arrakalarik generoen artean, eta ia ez dago halakorik ere plantilletako langileen artean, lanpostua edozein delarik ere. Izan ere, irabazien banaketa gehienbat erreserbetara, galeren konpentsaziora eta inbertsio propioetara bideratzen da (% 83), eta % 17 kausa sozial eta solidarioetara.

Jasangarritasun ekologikoaren printzipioari dagokionez, nabarmendu behar da **erakundeek % 92k kontsumo arduratsuaren irizpideak**



onartzen dituztela, eta 785ek beren aztarna ekologikoa murriztu eta konpentsatzen dutela. Gainera, erdiek baino gehiagok jada energia berriztagarria kontsumitzen dute.

Nahiz eta uste den sektorea «dirulaguntza publikoetatik bizi dela» haren **diru-sarrera iturri nagusia fakturazioaren bidezkoa da (% 59), eta % 17 bakarrik dator dirulaguntzetatik.**

Beste alderdi garrantzitsu bat da erakundeek langileen lan-baldintzak duindu dituztela, baldintzak hobetuz kontziliazioan, zaintza-guneak sortuz, lan-harremanetarako barne-araudien bidez...

ESSko beste erakunde batzuekiko lankidetzak, gainera, **% 95ekoa da, eta dagoeneko erdiek baino gehiagok finantza etikoekin dihardute.**

Amaia Prieto • Denendako Sareko kidea

«Lizarraldeko ekonomiari bultzada sozial, solidario eta etiko bat emateko batu gara»



Zergatik eta zertarako lankidetzaz sare hau, zeintzuk dira proiektu hain ezberdinak elkar aritzeko arrazoiak?

Denendako Sarearen lehen urteetara joaten ba gara, momentu horretan sortu ziren proiektuak Lizarran bizi eta lan egiteko nahia-rekin sortu ziren. Hori dela ia proiektu guztiak komunean dugun ezaugarria. Baina honi lotuta, proiektuen izateko eta lurraldean parte hartzeko erak ere batzen gaitu. Lizarraldeko ekonomiari bultzada sozial, solidario eta etiko bat emateko nahia dugu, eta konturatu gara elkarlanean aritzea askoz onuragarria dela.


Euskal Herriko beste sare batzuekin hartu emanak izan dituzue: REAS, OlatuKoop, Udalbiltza... Zer bilatzen zenu-ten harreman hauekin eta zertan lagundu dizueten?

faseetan baino prestatuagoa egon dadin, behar beharrezkoa iruditu zaigu Ekonomia Sozialaren arloan lan egiten duten beste elkarteekin harremana izatea. Bai laguntza eskatzeko bai elkarrekin lan egiteko. Beste sare hauek, gehien bat, barne egituraren eman digute laguntza. Haien barne egituraren esperientziaz baliatuta, guk gurea bera imajinatze-ko aukera izan dugulako. Ideia freskagarriak ekarri dizkigute, eta honek Lizarraldeko saretea nola egin dezakegun jakiteko lagundu gaitu.

**Zuek sare lokal bat zarete. Ze ekarpen egin ahal diozue zuek beste sare horiei, euren jarduna herrialde edo nazio-
nal maila kokatzen dutela?**

Gure lokaltasunaren barruan sortzen ari diren, edo sortu ahal diren proiektuak herrialde edo nazional mailan garrantzia izan dezakete. Beraz, nik uste elkarlan honek beste sareetako proiektuak Denen-
dako Sarearen proiektuekin harremantzea onuragarria izan daite-
keela. Horrez gain, ekonomia sozial eraldatzailearen beste puntu garrantzitsu bat sortu dezakegula herrialdeen mapan eta horrek beste sare horientzako ere ona izan daitekeela uste dugu.

*Denendako sarea Lizarral-
deko ia 30 proiektuek osa-
tzen dute. Turismo enpresak,
artisauak, nekazariak, taber-
nariak, artistak, abokatuak,
informatikariak, aholkulari-
tzak, merkatariak... Era oso
ezberdinetako enpresak
elkartu dira ekonomia beste
era batean bultzatu daiteke
erakusteko. Duela urte batzuk
sarearen ideia izan bazuten
ere, orain bultzada berri bat
eman diote.*





«Ni desazkunde zalea naiz, baina zintzoak izan gaitezen, ez gaude prestatuak, erostetik alokatzera pasatu beharra dago»

Zertan ari zarete enpresa honetan?

Gauzen Internet esaten diogun merkaturako elektronika egiten dugu, eta mundu fisikoa digitalizatzea lortzen dugu, sentsoreak denetarikoko objektu eta makinetan jarri. Aparatuak nola funtzionatzaren duten esaten diguten datuak lor ditzakegu, aparatuak hobetzeko.

Zer da gauzen internet delako hori?

Gure ingurunean dauden objektuak interneti konektatuta egotea, domotikan bezala. Pentsa dezagun hiri adimentsuan, non askoz ere hobeki kudeatu daitekeen argiztapena, zabor bilketa, etab.

Eta nola murriztu dezakete teknologia horiek egungo kontsumismoa?

Gero eta petrolio eta lehengai gutxiago dago. Baina nola mantendu dezakegu egungoa bezalako gizartea baliabide gutxiagorekin? Gauzak erostetik alokatzera joz; horixe da bidea. Horrela, enpresa-sektoreak bere diru-sarrerak izaten jarraituko du, baina zaharkitze programatua duten gauzak saldu beharrean, alokatuko dizkizute, eta enpresek ahalik eta errendimendurik handiena atera nahiko dute; orduan, jakin nahiko dute nola dagoen objektu hori, piezak aldatu hautsi baino lehen, etab. Adibidez, ibilgailuen renting mundu hori; mantentze-lanak markaren etxean egin behar dituzu autoa nola dagoen jakiteko, gehiago iraun dezan.

Beste neurri bat zaharkitze programatua debekatzea izanen litzateke, ezta?

Bai, jakina. Nik desazkunderantz jo nahiko nuke, baina zintzoak izan gaitezen, ez gaude prestatuak: ez jendea, ez erakundeak, ez enpresak. Beraz, nola egin egungoaren ahalik eta gizarterik antzekoenean bizitzeko, baina ahalik eta gutxien kontsumituta? Erosketatik alokairura pasatuz, energian eta lehengaietan izugarri aurreztuz. Ingurumenari buruzko eragina murriztuko da, baina ekonomiak funtzionatzaren segi dezake.

Dena gero eta automatizatuago egoteak hainbat eta lan gutxiago esan nahi du...

Gizateriari lanordu asko aurreztuko dizkio, gutxiagorekin gehiago egitea da. Erronka da sortzen den aberastasun hori birbanatzea. Guk enpresa txikiak hornitu ditzakegu teknologia horretaz eta inguruneke ehunari teknologia-burujabetza bermatzen diogu.

Izaera sozial handiagoa duten ekimenek nola jaso dezakete teknologia horrek dakartzan onurak?

Teknologia hori oso merkea da eta adinekoen zaintzan aplikatu daiteke, edo baliabide gutxiarekin jendeari laguntzen dioten GKEen lanean... Teknologia horren bidez, gehiago egiten ahalko da gutxiagorekin.

Hala ere, jarraitzen dugu teknologia lotzen botereek ezarritako kontrolarekin...

Bai, egia da teknologia orain arte korporazio handiek eta botere handiek garatu dutela, baina teknologia helduagoa eta irisgarriagoa egin ahala, hainbat eta abantaila gehiago ditu. Nire gomen-dioa litzateke aurreiritziak alde batera uztea eta teknologia gure probetxurako nola erabili ikustea.

Zer harreman du zuen enpresa ekonomia sozial eta solidarioaren munduarekin?

Gizarte-aldaketa eragiten duten teknologiak ditut gustuko. Objektuen digitalizazioak negozio-eredua aldatuko du, ekonomikoa eta soziala. Eta agertoki berri horretan alternatiba solidarioagoekiko sentiberatasuna baldin badugu...

Bukatzeko, nola eramaten dira enpresan praktikara ekonomia solidarioaren printzipioak?

Lanaldiaren murrizketa garrantzitsua da familia eta lana bateragarri egiteko. Nahiago dugu lan egitea bizitzeko, eta ez, ordea, bizitzea lan egiteko. Garbiketa egiten digun enpresa REASkoa da. Oso hondakin gutxi sortzen ditugu, beti osagairik ekologikoenak aukeratzen ditugu, ez dugu sektore militarreko lan egiten.



«Digitalizazioak eredu ekonomikoa eta soziala aldatuko ditu. Eta agertoki berri horretan alternatiba solidarioagoekiko sentiberatasuna baldin badugu...»



ELKARRIZKETAREN BIDEOA